



ZERBITZUEN KARTA

2024

SARRERA

CATALONIA SPA

Catalonia Hotels-eko spak benetako erlaxazio- eta ongizate-oasiak dira Europako eta Karibeko helmuga berezietako batzuen bihotzean. Gure spa horiek ostalariei egonaldian esperientzia paregabea emateko diseinatu dira gazteagotzea eta zainketa pertsonala ardatz.

Spa eskusiboak dira, eta ostalariak lasaitasun-mundu batean murgiltzen dira atea gurutzatzen duten unetik beretik. Giro lasai eta bareak bilduta sentituko zara. Dekorazioa eta argiztapena kontu handiz aukeratu dira giro lasaigarria sortzeko, eta tonu leunek eta elementu naturalek leku baketsu-baketsu batean egongo bazina bezala sentiarazten dizute.

Era askotako tratamenduak eskaintzen dira Catalonia Hotels-eko spetan, ostalari bakoitzaren beharrak asetzea helburu. Masajeak ere ematen dira, aurpegikoak zein gorputzekoak. Terapeutak prestakuntza handikoak dira, eta esperientzia paregabea eta pertsonalizatua ematen dute, estresa arintzen, gorputza eta burua gazteagotzen eta espiritua suspertzen laguntzeko.

Catalonia Hotels-eko spen filosofiak erlaxazio-zerbitzu soilak baino gehiago eskaintzen ditu: esperientzia holistiko bat, gorputzaren eta gogoaren arteko harmonia sustatzeko. Gure spak ezin hobekak dira egunerokoaren harat-honatetik ihes egin eta gure burua zaintzeko eta berritzeko aldi bat hartzeko.

Astelehena: 10h - 20h

Asteartea: 15h - 20h

Asteazkenetik ostiralera; 10h - 20h

Larunbata: 10h - 21h

Igandea: 10h - 20h

SPA-SAIOAK 60 MINUTU IRAUTEN DU.

SPA-SAIOA OSTALARIARENTZAT	19,00 €
SPA-SAIOA KANPOKO BEZEROENTZAT	25,00 €
SPA-SAIOA + TRATAMENDUA KANPOKO BEZEROENTZAT	19,00 €





OSAGAI % 100 ERAGINKORRAK, KONTZENTRAZIO HANDIKOAK

Gure ustez, naturan bertan daude gure larruazalarentzako osagai aktibo onenak eta ahaltsuenak. Horregatik, kosmetiko organikoak eta beganoak garatzen ditugu, betekizun zorrotzenak betetzen dituztenak eraginkorrek izateko, zahartzeari aurre egiteko eta azalaren edertasuna indartzeko.

SCENSEk erabiltzen dituen osagai guztiak kontu handiz hautatzen dira, dituzten onuren, propietateen eta zientifikoki frogatutako eraginkortasunaren arabera. Gure osagaiek arau zorrotzak betetzen dituzte, eta beren purutasun eta eraginkortasunagatik aukeratu dira. Larruazalean ahalik eta emaitza onenak lortzeko, baimentzen den osagai aktiboaren kontzentrazio handiena erabiltzen du SCENSEk bere formuletan.

ERRITUAL ORGANIKOAK



 60 MIN.

 100,00 €

ORGANIC & VEGAN RITUAL

Gorputzeko masaje lasaigarria + Facial Flash tratamendua.

Erritual ultralimurtzailea eta zoragarria da, zentzumen guztiak pizteko eta argitasuna, ongizatea, erlaxazioa eta bizitasuna emateko. Hiru olio-mota hauekin egiten da: baobaba, bergamota eta astaipilikuaren eta izpiliku finaren hibridazioarekin egindako beste bat. Erritualak gorputzeko masaje lasaigarria eta Facial Flash tratamendua barne hartzen ditu, begitarte argitsua eta leuna erakusteko.

 80 MIN.

 120,00 €

TOTAL REPAIR RITUAL

Gorputzeko masaje lasaigarria + Aurpegiko tratamendu birsortzailea.

Aurpegiko eta gorputzeko erritual suspertzzailea, larruazala birsortu eta ezitzen duena. Bereziki egokia eguzkitan jarri ondoren edo larruazalak oso hondatuak izanez gero. Gorputzeko masajeak SCENS teknika eskusiboa baliatzen du, eta, L'HUILE RELAX INTENSE olioarekin batera, larruazala birsortu, tentsioak askatu eta ongizate-sentsazioa eta erabateko barne-bakea lortzen dira.

 120 MIN.


 150,00 €

LUXURY EXPERIENCE RITUAL

Esfoliazioa + Gorputzeko masaje lasaigarria + Aurpegiko masajea SCENS Facelift Massage.

Aurpegiko eta gorputzeko erritual eskusibo eta apartekoa, gorputzeko tentsioak askatu eta begitarteari bete-beteko argitasuna eta gaztetasuna itzultzen diona LE FACELIFT SCENS aurpegi-masajearen bidez. Konbinazio ezin hobea osatzen dute esfoliazioak eta gorputzeko masaje lasaigarriak eta aurpegikoak. Ernaberritzen ari zaren sentsazioa sentituko duzu une oro.

ORGANIC COUPLES



80 MIN.

220,00 €

ORGANIC MEMORIES

Murgil zaitetz erlaxazioko eta konexio sakoneko mundu batean, zuentzat propio diseinatutako esperientzia paregabe batekin.

CATALONIAN giro lasaia eta abegitsua sortu dugu, eguneroko estresetik ihes egin eta bata bestearekin birkonektatu ahal izateko. Gure esperientzia bikoteentzat aukera paregabea da bien arteko lotura indartzeko, masaje zoragarri batez gozatu bitartean.

50 MIN.

170,00 €

ORGANIC SERENITY

Senti itzazu harmonia eta konexioa gure lasaitasun-oasian. Gure masajea bikoteentzako esperientzia paregabea da lotura emozionalak indartzeko, erlaxazio sakon-sakonean murgildu bitartean.

60 MIN.

150,00 €

PRIVATE SPA

Spa pribatua, 21:00etatik 22:00etara. Cava-botila, fruta-melodia eta kakao-estasia bame.

AURPEGIKO ORGANIKOAK



 80 MIN.

 150,00 €

ETERNAL LIFTING EXPERIENCE

Adinari aurre egiteko liftinga.

Aurpegiko tratamendu ikonikoa, adinari aurre egiteko aktibo birsortzaile ugari duten kosmetiko eta maskarekin egina. Izan ere, larruazala sendotzeko eta elastikotasuna berreskuratzeko behar diren antioxidatzaile eta nutriente guztiak ematen dituzte aktibo horiek. LE FACELIFT SCENS masajearekin batera, muskuluak erlaxatu, larruazala argitu eta aurpegiko obaloak bere definizioa eta sendotasuna berreskuratzen ditu.

 75 MIN.

 130,00 €

DETOX SKIN TREATMENT

Ultra detox aurpegiko tratamendua, poluzioak makaldu eta eragindako larruazalei itxura fresko eta osasungarria berreskuratzen laguntzen diena. Ahalmen purifikatzaile (ikatz aktiboa) eta oxigenatzaile handiko maskaren bidez, larruazalak argitasuna eta itxura osasungarria berreskuratzen ditu.

 50 MIN.

 100,00 €

VEGAN CLEANSING FACIAL

Garbiketako errituala, luxuzkoa, larruazalari ezpurutasun guztiak kentzen, poluzioak eragindako kalteak ezabatzen eta itxura distiratsua eta argitsua berreskuratzen laguntzen diena.

 25 MIN.

 75,00 €

ORGANIC EXPRESS FACIAL

Facial Flash tratamendua, larruazal-mota guztiei hidratazioa ematen dieten produktu organiko eta beganoekin egina.

MASAJE ORGANIKOAK

 110 MIN.

 150,00 €

360° EXPERIENCE

Aurpegiko deskontrakturatzailea + Gorputzeko deskontrakturatzailea.

Aurpegiko eta gorputzeko masaje deskontrakturatzaileak. 360°-ko masajea ematen da, garezurra eta aurpegia barne. Hainbat olio-mota erabiltzen dira: kalamua, arnika, patxulia eta iltzea.

 50 MIN. 90,00 €

 80 MIN. 120,00 €

BIO DETOX MASSAGE

Masaje drainatzailea. Hainbat olio-mota erabiltzen dira (geranioa, baobaba eta txia), eta, DETOX eskuzko masajearekin eta SCENS WOOD THERAPY egurterapiako teknikarekin batera, metabolismoa estimulatzeko dute.

 25 MIN. 65,00 €

 50 MIN. 90,00 €

 80 MIN. 120,00 €

VEGAN RELAXING MASSAGE

Masaje erlaxagarria, hiru olio-motarekin: baobaba, bergamota eta astaizpilikuaren eta izpiliku finaren hibridazioarekin egindakoa. Bereziki aproposa giro erlaxatu eta limurtzailean errutinatik deskonektatu eta tentsio fisikoa eta mentala ezabatu nahi dutenentzat.

 25 MIN. 65,00 €

 50 MIN. 90,00 €

 80 MIN. 120,00 €

ORGANIC DECONTRACTING MASSAGE

Gorputzeko masaje deskontrakturatzailea, ultraeraginkorra eta presio irmokoa. Hainbat olio-mota erabilita (kalamua, arnika, patxulia eta iltzea), estres emozional eta korporala arintzen du, muskulatura erlaxatu eta oxigenatzen baitu, baita gorputz osoan metatutako tentsioa murriztu ere.

 50 MIN.

 90,00 €

CATALONIA THAI FOOT

Zure oinen osasuna.

Sendatze holistikoko teknika, erlaxazioa eta oreka ematen dituen gorputzaren sistemetan. Osasun orokor ona eta buruko baretasuna sustatzeko terapia gisa ezaguna, haren teknika espezifikoek zurezko tresna thailandiar tradizional bat erabiltzen dute, oinen tentsioa eta deserosotasuna arintzeko.



GORPUTZEKO ORGANIKOAK



 80 MIN.

 130,00 €

BODY SECRET DETOX

Drainatzeko, detoxifikatzeko eta siluetaren bolumena murrizteko propio diseinatutako gorputz-tratamendua. Estalki argalgarria eta L'HUILE MINCEUR zelulitisaren aurkako gorputz-olioa eman ez ezik, SCENS WOOD THERAPY teknika eksklusiboa ere aplikatzen da, silueta birmoldatu eta likidoen erretentzioa saihesteko, emaitza bikainak lortuta.

 25 MIN.

 70,00 €

ORGANIC BODY SCRUB

Gorputzeko esfoliazio bikaina. Hainbat gatz-mota (Himalaiakoa, Itsaso Hilekoa) eta esentzia-olio (izpilikua, geranioa, altzifrea) erabiltzen dira, larruazaleko zelula hil guztiak kentzen eta elastikotasuna eta hidratazioa berreskuratzen laguntzeko.

CATALONIA GASTRO & SPA



GOSARIA & SPA

Astelehenetik igandera, 09:00etatik 12:00etara

Buffet-gosaria hotelean

URBAN RELAXING MASSAGE: 25 MIN.

UR-EREMUA: 60 MIN.

80,00 €

GOSARIA & SPA BIKOTEAN

Astelehenetik igandera, 09:00etatik 12:00etara

Buffet-gosaria hotelean

ORGANIC MASSAGE: 50 MIN.

UR-EREMUA: 60 MIN.

200,00 €

SPA & AFARIA

Astelehenetik igandera, 18:00etatik 22:00etara

Afaria jatetxean

URBAN RELAXING MASSAGE: 25 MIN.

UR-EREMUA: 60 MIN.

110,00 €

SPA & AFARIA BIKOTEAN

Astelehenetik igandera, 18:00etatik 22:00etara

Afaria jatetxean

ORGANIC MASSAGE: 50 MIN.

UR-EREMUA: 60 MIN.

260,00 €

SPAREN ETIKETA

Spa lasaitasun- eta erlaxazio-espazioa da. Hitz egin ahopean eta itzali sakelako telefonoak. Eskerrik asko gure ongizaterako zentroa errespetatzen laguntzeagatik. Ezin da ez janaria, ez edaria sartu.

ZER ERABILI?

Bainujantzia, txanoa eta txankletak nahitaezkoak dira (sparen harreran eros daitezke). Kabinako tratamenduetarako, behar den materiala emango dizugu (erabili eta botatzekoak eta toallak). Gure terapeutek gaitasun profesional gorena dute, eta uneoro bermatuko dituzte zure erosotasuna eta pribatutasuna.

BALIOZKO OBJEKTUAK

Zure baliozko objektu pertsonalak logelako kutxa gotorrean uztea gomendatzen dizugu, ezin baitugu spa-zentroaren barruan gauzak galdu edo lapurtzearen erantzule egin.

OSASUNARI BURUZKO OHAR BEREZIAK

Osasun-arazoak edo alergia badituzu, edo haurdun bazaude, mesedez, ez ahaztu jakinaraztea gure langileei tratamendua erreserbatzeko unean. Baliteke tratamendu batzuk egokiak ez izatea.

SPA-TRATAMENDU EGOKIENA AUKERATZEA

Gure webgunean duzu spa-tratamenduen menu osoa. Tratamendu bat aukeratzeko laguntza behar duzula uste baduzu, gomendatzen dizugu zuzenean spara deitzea edo zuzenean harrerara joatea. Atsegin handiz lagunduko dizugu. Spa-zerbitzuak ahalik eta lasterren erreserbatzea ere gomendatzen dizugu.

TRATAMENDUAN ZEHAR

Zure nahiak eta lehentasunak gure ardura dira. Tratamenduan edozein gauzarekin (presioa, musika, temperatura, etab.) deseroso sentitzen bazara, ez egin zalantzarik eta eman haren berri terapeutari, mesedez. Beharrezko aldaketak egingo ditugu erosoago egon zaitezten.

BERANDU IRISTEA

Iritsi hitzordua baino 15 minutu lehenago, mesedez. Berandu iristen bazara, tratamendurako emandako denbora mugatu, eraginkortasuna gutxitu eta, garrantzitsuena, plazera eta gozamina murriztuko dira, zoritxarrez. Gizalegez jokatu nahi dugu gure bezero guztiekin, eta, horregatik, aurreikusitako orduan egiten dira tratamendu guztiak. Zerbitzuak osorik ordainduko dira beti.

SPAREN ERRESERBA BERTAN BEHERA UZTEA

Bertan behera utzi behar izanez gero, jakinarazi gutxienez 12 orduz, mesedez. Azken 12 orduetan bertan behera utziz gero, zenbateko osoaren % 50 kobratuko da. Aurkezten ez diren bezeroek erreserbatutako tratamenduaren zenbateko osoa ordaindu beharko dute.

GUTXIENEO ADINA

16 urtetik beherako bezeroek ezin dute sartu ez ur-eremura, ez saunara, ez lurrin-kabinara. Haientzako tratamenduren bat erreserbatu bada, gurasoekin egon beharko dute kabinan.

ORDAINKETA

Zordunketa- eta kreditu-txartel guztiak onartzen ditugu, eta eskudirua ere.

Hoteleko ostalari gisa, zure logelara kargatuko dira spa-zerbitzuak, hala nahi baduzu.

CATALONIA
HOTELS & RESORTS

TELEFONOA: +34 943 44 42 94
EMAIL: donosti.spa@cataloniahotels.com
LUZAPENA: 185